

Mundu-ikuskerak

Nazioarteko Harremanetako korronte teorikoak

Karlos Pérez de Armiño

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Pérez De Armiño, Karlos

Mundu-ikuserak : Nazioarteko Harremanetako korrante teorikoak / Karlos Pérez de Armiño. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2019. – 241 p. ; 24 cm.

Bibliografía: p. [229]-241.

D.L.: BI-2407-2019. — ISBN: 978-84-1319-101-0

1. Relaciones internacionales.

327

UPV/EHUko Euskara Zerbitzuak sustatua eta zuzendua,
Euskarazko ikasmaterialgintza sustatzeko deialdiaren bitartez.

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-101-0

Lege gordailua: BI-2.407-2019

Iratxerentzat

Aurkibidea

Hitzaurrea	13
1. Nazioarteko Harremanen diziplinarako sarrera	17
1.1. Diziplinaren aztergaia	17
1.2. Diziplinaren izenari buruzko eztabaidak	19
1.3. Diziplinaren ezaugarri orokorrak	20
1.4. Diziplinaren jaiotza: aurrekariak eta sorrera	24
1.5. Hedapen eta ezarpen geografikoa	27
1.6. Diziplinaren bilakaera historikoaren laburpena	28
1.7. Diziplinaren bilakaeraren azalpena: eztabaiden segida edo pentsamenduko tradizioak?	30
1.8. Oraingo mapa teorikoa: pluraltasun ontologikoa, epistemologikoa eta metodologikoa	34
2. Nazioarteko gizartea, diziplinaren aztergai gisa. Beste kontzeptu batzuk: nazioarteko sistema, ordena eta komunitatea	39
2.1. Nazioarteko gizartea	39
2.1.1. Ezaugarri orokorrak	39
2.1.2. Nazioarteko gizartearen eta nazio- edo barne-gizartearen arteko desberdintasunak	42
2.1.3. Nazioarteko gizartearen arautze-mekanismoak: nazioarteko erregimenak eta gobernantza globala	43
2.2. Nazioarteko sistema, nazioarteko gizartea aztertzeko tresna gisa . .	45
2.3. Nazioarteko ordena, botere-egitura gisa	47
2.4. Nazioarteko gizartetik nazioarteko komunitaterako igarotze eztabaidagarria	48
3. Errealismoa	51
3.1. Sarrera	51

3.2.	Korrante errealistaren sustrai intelektualak	53
3.3.	Errealismo politikoa	54
3.4.	Epistemologia positibista eta zientifismoaren eta tradizionalismoaren arteko eztabaida	59
3.5.	Neorrealismoa eta errealismo estrukturala	61
3.6.	Errealismo ofentsiboa, defentsiboa eta neoklasikoa	66
3.7.	Balantzea: nagusitasuna eta kritikak	68
4.	Liberalismoa	71
4.1.	Sarrera	71
4.2.	Liberalismoaren sustrai intelektualak eta oinarritzko printzipioak	73
4.3.	Idealismoa	75
4.4.	Globalismoa edo transnazionalismoa	77
4.5.	Neoliberalismoa	80
4.6.	Nazioarteko erregimenak	83
4.7.	Bake liberala eta bake demokratikoa	86
4.8.	Eskola Ingelesa. Ikuspegi teorikoen arteko zubia	88
5.	Marxismoa eta estrukturalismoa	91
5.1.	Sarrera	91
5.2.	Sustrai intelektualak: Marxen materialismo historikoa eta Lenin-en inperialismoa	94
5.2.1.	Marx eta materialismo historikoa	94
5.2.2.	Inperialismoaren teoria	98
5.2.3.	Ikuspegi estrukturalistak Nazioarteko Harremanetan: dependentziaren teoria eta sistema-munduaren teoria	99
5.2.4.	Estrukturalismoak beste ikuspegi kritiko batzuetan duen eragina	105
5.2.5.	Estrukturalismoa eta marxismoa zalantzan jartzen	107
5.2.6.	Ekarpenak eta kritikak	110
6.	Korrante postpositibisten desafioa eta gaurko <i>laugarren eztabaida</i>	113
6.1.	Eztabaida interparadigmatikoa agortuta	113
6.2.	<i>Laugarren eztabaida</i>	115
6.3.	Korrante postpositibisten ezaugarri orokorrak	118
6.4.	Nazioarteko Harremanen egungo mapa teorikoa	123
7.	Konstruktibismoa	127
7.1.	Sarrera	127
7.2.	Egitura ideazionalak eta normatiboak nazioarteko politikan duten garrantzia	129
7.3.	Arauen eta instituzioen eragina	131
7.4.	Identitateen eta interesen eraikuntza, eta horiek ekintzan duten eragina	132
7.5.	Agenteen eta egituren elkarrekiko eraketa	134
7.6.	Konstruktibismo konbentzionala eta konstruktibismo kritikoa	135
7.7.	Ekarpenak eta kritikak	138

8. Teoria Kritikoa	141
8.1. Sarrera	141
8.2. Aldaera neogramsciara	143
8.3. Habermastar aldaera	149
8.4. Bi alderdietako elementu komunak	152
8.5. Ekarpenak eta kritikak	155
9. Ikuspegi postestrukturalistak (postmodernistak)	157
9.1. Sarrera	157
9.2. Ezaugarri ontologikoak eta epistemologikoak	159
9.3. Analisisirako tresnak	161
9.3.1. Analisi genealogikoa	162
9.3.2. Dekonstrukzioa	164
9.3.3. Irudikapen-politiken analisisa	166
9.4. Jorratutako gai nagusiak	166
9.4.1. Estatu subiranoa eta boterea zalantzan jartzea: erresisten- tziako eta alteritateko ekimenak	167
9.4.2. Botere hegemoniko globaleko mekanismoak: biopolitika	167
9.4.3. «Beste» mehatxaria, Terrorismoaren Aurkako Gerra Glo- bala irailaren 11ko atentatuaren ondoren eta eszeptionalis- moa	169
9.5. Ekarpenak eta kritikak	170
10. Ikuspegi postkolonialak	175
10.1. Sarrera	175
10.2. Orientalismoa. Mendealdearen nagusitasunaren diskurtsoa eta zibilizazioaren alorreko hierarkia	177
10.3. Kolonialismo diskurtsiboa	179
10.4. Identitatea, hibridotasuna eta arraza	181
10.5. Biopolitika globala eta nekropolitika	183
10.6. Segurtasuna, bakea eta garapena	185
10.7. Mendekoen erresistentzia	188
10.8. Ekarpenak eta kritikak	188
11. Ikuspegi feministak	193
11.1. Sarrera	193
11.2. Feminismoaren ekarpen nagusiak Nazioarteko Harremanetan	194
11.3. Ikuspegi feministen aniztasuna	198
11.3.1. Feminismo liberala	198
11.3.2. Feminismo erradikala	200
11.3.3. Feminismo postmodernoa edo postestrukturalista	203
11.3.4. Feminismo postkoloniala	205
11.4. Ekarpenak eta kritikak	207

12. Teoria berdea	211
12.1. Sarrera	211
12.2. Desafio ekologikoaren larritasuna eta antropozenoa.	212
12.3. Medioanbientalistik eta ekologistatik teoria berdera	213
12.4. Teoria berdearen postulatu nagusiak	215
12.4.1. Ekozentrismoa antropozentrismoaren aurrean	215
12.4.2. Modernizazioa zalantzan jartzea.	216
12.4.3. Hazkundera eta garapena zalantzan jartzea	217
12.4.4. Ingurumen-justizia.	218
12.4.5. Estatuzentrismoa zalantzan jartzea. Kosmopolitismoa eta deszentralizazioa.	219
12.4.6. Ingurumenaren eta segurtasunaren arteko lotura	221
12.5. Ekarpenak eta kritikak.	222
13. Azken oharrak. Aniztasun teorikoa eta etorkizuneko erronkak	225
Bibliografia	229

Hitzaurrea

Liburu honetan, eskuarki, Nazioarteko Harremanak deritzogun diziplinaren mapa teorikoa marraztu nahi dugu; hau da, argi azaldu nahi ditugu arlo akademiko horren, bera osatzen duten joera edo korronte teoriko desberdinen, eta joera horien artean izaten diren eztabaida nagusien oinarritzko ezaugarrietako batzuk.

Nazioarteko Harremanen (NH) diziplina Lehen Mundu Gerra bukatu ondoren sortu zen, lehendik zeuden aurrekariak oinarri hartuta. Izan ere, beste arlo akademiko batzuek nazioarteko auziei buruzko azterketak eginak zituzten lehenagotik, ikuspegi sektorialak eta partzialak izan arren. Harrezkeroztik, hainbat korronte teoriko sortu dira diziplinaren barruan, eta, gehienbat, bi eragile hauek hauspotu dituzte joera horien agerpena eta bilakaera: nazioarteko gizartearen izan diren aldaketak, eta diziplinan eta, oro har, gizarte-zientzietan izan diren eztabaida teorikoak. Hortaz, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera eta Gerra Hotzaren amaierarekin bat etorritik, pluraltasun teorikoak nabarmen egin du gora NHetan. Hala, bada, gaur egun, diziplinak ikuspegi teoriko ugari hartzen ditu barne; ikuspegi guztiek lotura estua dute oro har gizarte-zientzietan dauden korronte teoriko handiekin, baina hainbat desberdintasun dituzte maila batzuetan: sus-traiak eta funts intelektualak, munduari eta errealitateari buruzko ikuskera, analisi zientifikoa ulertzeko modua, sinesmen eta proposamen politikoak, etab.

Ondorio gisa, gaur egun, NHen diziplina zatituta dago, eta «izatez ez baidagarria» (*essentially contested*) da; hau da, dena da eztabaidagai, ez dago adostasunik, ez argi onartutako definiziorik, natura-zientzietan gertatzen denaz bestera. Hein batean, hori hala da diziplinak aztertzen dituen

arazoez ondorio politiko eta etiko larriak dituztelako, eta era askotako ikuspegiak daudelako haiei buruz¹.

Beharbada, irakurleari irudituko zaio NHek dituzten korronteak aztertzea zeregin abstraktuegia dela, eta ez dela behar-beharrezkoa. Aitzitik, joera horiek ezagutzea ezinbesteko tresna da, eta lagungarria izango zaigu gaur egun munduan dauden arazo eta dinamika ugari aztertzeko (gerrak, nazioarteko lankidetzak, globalizazioa, borroka sozialak, etab.). Era berean, aukera emango digu munduari eta bere arazoei buruz hainbat parte-hartzailek (adibidez, akademiak, erakundeak, politikariek edota hedabideek) egiten dituzten irudiak eta irudikapenak hobeto ulertzeko, eta ikuspegi horien atzean dagoen guztia argitzeko (balioak, oinarri ideologikoak, aurreiritziak, interesak, helburu politikoak, etab.).

Diziplinaren teoria oso plurala da gaur egun, eta, beraz, ez da erraza hari buruzko kartografia prestatzea, hau da, bere joera, ikuspegi eta eztabaiden sailkapen argia eta txukuna lantzea. Dena dela, oro har, aurrerago ikusiko dugunez, bi multzo teoriko handi hauek aipa ditzakegu: arrazionalista eta postpositibista. Lehen multzoak biltzen dituen joerak edo ikuspegi tradizionalak oso desberdinak dira elkarren artean, baina aho betez onartzen dute errealitate soziala modu arrazionalerik eta objektiborik azter daitekeela, eta, era horretan, teoria zientifikoen bidez azal daitekeela. Aitzitik, berriagoa den eta, era berean, korronte asko dituen multzo postpositivistaren arabera, errealitate soziala ezin da modu arrazionalerik eta objektiborik aztertu, natura-zientzietan egiten den bezala, analisi guztiak baldintzatuta daudelako, eragile askok lerratuta (ikertzailearen balioak eta ideologiak, interes politikoak, botere-harremanak, etab.). Testu honetan, bi multzoko bereizketa hori erabiliko dugu diziplinaren teoria funtsean egituratzeko.

Testu honek bi zati ditu. Lehen zatian, NHen diziplinaren sarrera modukoa agertzen da. Bertan, NHen diziplinaren oinarritzko ezaugarriak azalduko ditugu: aztergaia, bera sortzeko eragileak, bilakaera historikoa, eta gaur egun dauden korronte ugari sailkapen labur bat, desberdintasun ontologiko, epistemologiko eta metodologikoetan oinarrituta. Horrez gain, labur xehatuko ditugu NHetan funtsezkoak diren kontzeptu batzuk; hasteko, *nazioarteko gizartea*, maiz diziplinaren aztergaitzat hartua, eta, ondoren, hurbil dauden beste kontzeptu batzuk, hala nola, *nazioarteko sistema*, *nazioarteko ordena* eta *nazioarteko komunitatea*. Testu honen bigarren zatian, diziplinak dituen korronte desberdinak eta unearen arabera

¹ BROWN, Chris eta Kirsten AINLEY (2017), *Nazioarteko Harremanak zer diren*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo (jatorrizko argit.: *Understanding International Relations*, MacMillan, Basingstoke eta New York, 4. argit., 2009), 11. or.

korronte horien barruan sortu diren ikuspegi bereziak landuko ditugu, batez ere gaur egun indarrean daudenak. Horretarako, lehen aipatu dugun bi multzoko sailkapena erabiliko dugu. Hortaz, bada, aurrena, joera arrazionalistak azalduko ditugu: errealismoa, liberalismoa eta estrukturalismoa. Eta, jarraian, joera postpositibistak ikusiko ditugu: konstruktibismoa, Teoria Kritikoa, teoria postkoloniala, postestrukturalismoa, feminismoa eta teoria berdea.

Nazioarteko Harremanen diziplinarako sarrera

1.1. Diziplinaren aztergaia

Ez da erraza diziplinaren aztergaia zehaztea, hau da, bere mugak, lantzen dituen gaien esparrua mugatzea. Esan bezala, diziplinan ikuspegi teoriko ugari daude, bakoitza munduari buruzko ikuspegi batekin, eta, beraz, iritzi desberdinak daude diziplinak eduki beharko lukeen aztergaiaz.

Hala, esate baterako, diziplinaren ikuspegiarik tradizionalenak, *errerealismo* izenekoak, beti babestu izan du estatuen arteko harremanek izan behar dutela aztergaia, batez ere segurtasunari dagozkion harremanak, haien gaitasun materialak oinarritzat hartuta. Hala ere, mugei eta estatuei hainbesteko garrantzia ematen dien ikuspegi hori zalantzan jarri dute beste ikuspegi batzuek, orain dela hamarkada batzuetatik hona. Ilde horretan, globalismoak, 70eko hamarkadan sortutako ikuspegi liberalak, mundu osoan gero eta sendoagoak diren interdependentzia ekonomiko eta kometzialleko loturak nabarmendu zituen oroz gain. Era berean, egungo neoliberalismoak globalizazioaren aroko interkonexio ekonomikoen eta lankidetzaren politikoaren goraldia jartzen du jopuntuan. Bestetik, 70eko hamarkadan sortutako ikuspegi estrukturalisten eta neomarxisten arabera, munduko sistema ekonomiko kapitalistaren egiturak izan behar du aztergai nagusia, mendeakotasuna eta zapalkuntza sortzen dituelako, hala Hego zein Iparreko herrialdeetan, nola gizarte-klaseen artean.

Bestalde, 80ko eta 90eko hamarkadetatik hona, hainbat korrante postestrukturalista azaldu dira, eta korrante horien azterketen ardatza ez dira

faktore materialak (militarrak edo ekonomikoak), faktore ideologikoak eta diskurtsiboak baizik, azken hauek ezinbestekotzat jotzen baitutuzte mundua ulertu ahal izateko. Adibide gisa, estrukturalismoaren ustez, nazioarteko errealtatea (erakundeak, egiturak, arauak, arazoak, etab.) partekatutako akordioen bidez sozialki eraiki den zerbait da, hau da, era batera edo bestera ulertzen dugun heinean existitzen dena. Hori dela-eta, bere azterketen ardatza diskurtsoak, balioak, arauen eraikuntza, eta abar dira. Era berean, ikasketa postkolonialak honi begira jartzen dira: Mendebaldekoak ez diren gizarteak behe-mailakotzat hartzen dituzten diskurtsoak eta irudiak aztertzeari begira, eta Mendebaldeak bere nagusitasuna justifika dezan diskurtso eta irudi horiek betetzen duten zeregina argitzeari begira. Bestetik, postestrukturalismoak, errealtatearen azalpen orokorra eman nahi duen teoria edo kontakizun oro arbuizatzear bat, bereziki balioesten ditu —eta bildu ere egiten ditu— botere-harremanei aurre egiten dieten pertzepzio subjektibo ugariak, tokiko identitateak eta diskurtsoak, eta ikuspegi heterodoxoak. Azkenik, feminismoaren zati handi batek genero-harremanak eta sistema sozioekonomiko patriarkalak nazioarteko gizartearen eraketan duten eragina hartzen du aztergai.

Ikusten denez, joera teoriko bakoitzak munduari buruzko ikuskera berezia du, bai eta ikuspuntu berezi bat ere mundua aztertzeko. Horregatik, zaila da oro har onartutako definiziorik ematea NHen aztergaia denari buruz, baina honako hau formulazio orokorra eta baliagarria izan daiteke: NHeK sakon aztertzen dituzte «nazioarteko gizartea eratzen duten harreman sozialak, hala politikoak nola politikoak ez direnak, bai ekonomikoak, kulturalak, humanitarioak, erlijiozkoak eta abar, bai estatuen artekoak, bai eta nazioarteko gizarteko beste parte-hartzaile batzuen artean edota parte-hartzaile horien eta estatuen artean izaten direnak ere»².

Bestela esanda, NHeK estatuaren edo gizarte nazionalen mugak gainditzen dituzten mota guztietako harremanak, eragin-trukeak eta gertaerak aztertzen dituzte (politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, etab.), hain zuzen, nazioarteko gizartean eragina dutenak, eta parte-hartzaile asko tartean sartzen dituztenak (estatuak, nazioarteko erakundeak, enpresak, GKEak, hedabideak, etab.)³.

Eragin-truke horiek ez dira gertakari bakartuen batura, eragin-trukeen sarea eratzen baitute, globaltasun bat, harreman horiek izaten diren ingurunea edo entitate berezia, *nazioarteko gizarte* izeneko. Hala, korrante eta egile askoren ustez, gure diziplinaren aztergaia harreman horien emai-

² ARENAL, Celestino del (1997), *Introducción a las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madrid, 4. argit. (1. argit., 1984), 23. or.

³ *Ibidem*, 431.-432. or.

tza da, nazioarteko gizartea. Nazioarteko gizartearen definizioaz eta edukiaz, aurrerago hitz egingo dugu zehatzago.

1.2. Diziplinaren izenari buruzko eztabaidak

Diziplina akademiko guztietan, bat-etortzea egon behar du kideen artean erabiliko duten terminologiari eta izango duten definizio zehatzari buruz, komunikazioa eta eztabaida errazte aldera. Hala ere, NHetan, beste diziplina batzuetan ez bezala, oraindik ezin izan dugu aho batez onartutako kontzepturik sortu, ezta diziplinaren izen bakarra atera ere. Terminologiari buruzko eztabaida hauek lotura estu-estua dute egile bakoitzaren hautu teorikoeekin, bakoitzak zedarritutako azter-eremuarekin, eta horri ekiteko moduarekin. Bestela esanda, eztabaidak arazo hauen emaitza dira:

- a) Diziplinaren ohiko izena eta aztergaiak duen izena berdinak dira, eta hori nahasgarria izan daiteke. Beste arlo batzuetan ez da horrelakorik gertatzen; adibidez, Medikuntzak (diziplina) osasuna eta gaixotasuna aztertzen ditu (aztergaia). Gure kasuan, nahasmena arintzeko, *Nazioarteko Harremanak* kontzeptua erabili ohi dugu, hitz larriz idatzita, diziplina esateko, eta *nazioarteko harremanak*, hitz xehez, diziplina horrek aztertzen duen aztergaia edo arazoa adierazteko.
- b) *Nazioarteko Harremanak* izena ez da egokia diziplinaren egungo errealitateari begira. *Nazioarteko* izena XVIII. mendean sortu zen, nazioen arteko harremanei esateko, nazioak estatuen sinonimotzat hartuta. Alde batetik, ez dira gauza bera nazioa eta estatua. Bestetik, eta hau da garrantzizkoena, gaur egun gure diziplinak ez ditu soilik estatuen arteko harremanak aztertzen, parte-hartzaile ugarien arteko harremanak baizik.
- c) Adituak ez dira guztiz bat etortzen diziplinak aztertzen duen edukia zein den eta beste diziplina batzuekiko (nazioarteko zuzenbidearekiko, nazioarteko ekonomiarekiko edo soziologiarekiko...) mugak zein diren zehaztean (muga lausoak eta arinak baitira), ez eta bere kategoria eta kontzeptu nagusiak finkatzean ere. Hori hala da, alde batetik, diziplina oso berria denez zehaztugabetasunak sortzen direlako, eta, bestetik, ikuspegi teoriko ugari daudelako.

Hortaz, diziplinak izendapen desberdinak ditu, *Nazioarteko Harremanak* izenaz gain. Alabaina, izen horiek ez dira sinonimo hutsak, bakoitzak ezaugarri bereziak baititu edukiei, ikuspegi teorikoari eta herrialde batetik bestera duten erabilpenari begira. Izen horietako bat *Nazioarteko Politika* da, eta estatuetako gobernuen arteko harremanak ikuspegi tradizionaletik aztertzen dituztenek erabiltzen dute gehienbat. *Estatuareko Harremanak*

edo *Kanpoko Politika* izendapenek ere antzeko ikuspegi estatuzentrikoa dute, hau da, estatuan ardaztua. Hala ere, globalizazioaren eta arazo globalen garrantzia ikusita, ez da aski estatuen arteko harremanak aztertzea; horrez gain, ikuspegi unibertsalagoa hartu behar da, eta, horren ondorioz, *Mundu mailako Politika* eta *Politika Globala* bezalako izendapenak azaldu dira. Gainera, Frantzia eta Espainia bezalako herrialdeetan, *Nazioarteko Ikasketak* izena erabiltzen da, eta nazioarteko errealitatea lantzen duten hainbat diziplina hartzen dituzte barne (Nazioarteko Harremanak da horietako bat).

Ikusten denez, gaur egun hainbat izendapen daude, eta batzuk edo besteak erabiltzen dira egilearen, joera teorikoaren edota herrialde bakoitzean nagusi den tradizio akademikoaren arabera. Izen horien arteko desberdintasunak lausoak izaten dira maiz. Izan ere, sarritan, izen desberdinak erabiltzen dira eduki berberarekin, eta, beste batzuetan, berriz, eduki desberdinez hornitzen da izen bera.

Nolanahi ere, beste izen horietatik batek ere ez du lortu onarpen eta adostasun handirik. Hala, bada, hutsuneak hutsune, *Nazioarteko Harremanak* izena da zabalduena tradizio akademiko desberdinen artean, eta arrazoi praktikoengatik onartzen eta erabiltzen da. Hargatik, izen hori erabiliko dugu testu honetan, baina argi zehaztu behar dugu lehen aipatutako zentzuan ulertzen dugula: ez estatuetako gobernuen arteko harreman diplomatikoei esateko, nazioarteko gizarteko era askotako parte-hartzaile ugarien arteko eragin-truke guztiei buruz aritzeko baizik.

1.3. Diziplinaren ezaugarri orokorrak

Gaur egun NHen diziplinak dituen oinarritzko ezaugarriak hainbat eragileren emaitza dira; adibidez, honako hauena: aurrekari teorikoak, diziplina hurbil batzuek beregan izandako eragina, gizarte-zientzien arestiko bilakaera, nazioarteko gizartean izandako aldaketa historiko sakonak, herrialde boteretsuen agenda politikoen eragina, edota agenda horiei lotutako korrante intelektual batzuen nagusitasuna. Ezaugarri horietako batzuen zirriborroa egin dugu lehenago. Hona hemen ezaugarri nagusiak:

a) *Gaztetasuna*

Beranduen azaldu den gizarte-zientzietako bat da, eta, hori aintzat hartuta, hobeto ulertzen da heldutasun txikiagoa izatea, eta muga teorioak eta zehaztugabetasun terminologikoak izatea.